

## AMODIOAZ

...eta aipatu dudan George-Heinrich Stanenberg gure kolega estimatuaren “*Gnosis, Wirklichkeit und Irrealer Natur*”<sup>1</sup> saiakeran nire ondorio berberak baieztatzeko azaltzen dituen legez, aitortpenaren zentzu dramatikoaren mozorrocketarekin topo egingo genuke gogoaren borondate propioa abandonatuz gero. Eskerrik asko, mila esker...

Aretoko hormetan errepikatzen ziren txaloen oihartzunek hizlariarengan zuten helmuga. Saio bikaina, guztien iritzian, benetan primerakoa. *Magnifique!* frantsesek, *bravissimo!* italiarrek, alemandarrak zaratsatu esku-ahurren kolpe bortitzez. Britaina Handitik etorritako partaideen txaloketa ordenatua. Are ordenatuagoa zen Moskuko Karl Marx Unibertsitateko Psikologia Saileko hiru katedratiko seriozen txaloketa bateratu eta erritmikoa.

Entzuleagoa zutik jarrita hizlariaren aztoramendua areagotu egin zen oihartzun bakoitzarekin. Masaila gorrizkatuek hala nabaritzen zuten. Hiruzpalau minutuko txaloketa baretu zenean, hizlariak atril gainean zeuzkan orriak bildu zituen eta larru beltzeko poltsan sartu; poltsa eskumako sorbaldan eskegi eta kolegen arteko korruetara eramane zuten jardunaldietako Presidente eta Presidente Ordekoen arrenkurek.

- Zorionak Brunell doktorea eta eskerrak zure ikuspuntuak konpartitzeagatik.
- Ez da ezer. Zeuon meritua azken une arte gelditu zarete aretoan-eta.
- O Brunell, Brunell... umorea eta ironia jakinduriaz betetako hitzak bezain ongi ehuntzen dituzu. Ez al da bikaina, jaun-andreok?

Korrua eginez, herrialde ezberdinetako bostpasei buru argiek baieztatu zuten Leonard O’Feil Dublingo Unibertsitateko doktoreak eginiko luadorioa. Dena zen eskua luzatu eta eskua estutu, sorbaldan merituen kolpetxoak jaso, hitz goxoak eta zorion onekoak handik eta hemendik etorriak bildu. Martha H. Wilson Pennsilvaniako Unibertsitateko ikerlari izendunak eta hainbat *Doctorandus*-eko *Magister* bezala hogeita hamar urtetan izandakoak, baieztatzeko zeinuak egiten zizkion Brunell doktoreari aurpegi irrifartsua ageriz.

– Ederki azaldua Brunell doktorea, ezinezkoa nioke inolako akatsik aurkitu hitzaldiari. Batez ere, aipatu duzun ispiluaren parabola (hitza baimentzen badidazu) izan dut sano atsegin. Eta nola ez! kontatu eta muin ezkutuenetaraino aztertu dizkiguzun

---

<sup>1</sup> „*Gnosis, Wirklichkeit und Irrealer Natur*“ (Hamburg, 2009) George-Heinrich Stanenberg, 548 orri. VI. Kapituluak: Über menschliche Emotionen vs die primitive Natur, 156. orria eta ondorengoak. Irakur bitza baita “*La forza de la Notte*” Giovanni Bandualli (Pisa, 2007) III-V kapituluak eta “*Psychological Dreams*” Paul J. Dutsch (Pennsylvania University, 2007) II. atala.

adibideak. Bai jauna, ongi prestatuak eta momentu egokienean plazaratuak. Zorionik beroneak, doktore! Pozik izango ginatke gure Unibertsitatean ikastaldi berezi batzuk prestatuko bazenizkigu, hitz egingo dugu horretaz geroxeago, doktore, ez baduzu eragozpenik.

Moskuko katedratiko bizar zuridunak hizkeran zuen doinu gogorraz lausotu zion lana Brunell doktoreari.

– Bravo, Alain Stefanovich, lan bikaina gurekin partekatu duzuna. Zure urteotako lana hitzaldi honetako erakustaldian igartzen dut eta ez da zinez, alferrikako lana izan.

– Benetan gogoko ditut zu bezalako autoritate batengandik isuri dizkidazun hitzok Sergei Basilievich, baina ez ahaztu zure ikaslea eta jarraitzailea baino ez naizik.

– Ez ukatu meriturik zure buruari Alain, ez zaitetz hain umila izan harrotasunaren bigarren esanahia duzu hori-eta.

– A nola nabaritzen den nor maisua eta nor ikaslea, Sergei Basilievich!!

Farre egin zuten gizon biek elkarri besarkada zintzoa eman aurretik. Irakaslearen lana betea zen ikasleak goi maila lortu zuelako, ez al da maisu batentzak saririk hobereena hezitutako intelekttoa hain garaiera altuetaraino heldu izatea?

– Eta Brunell doktorea, nola azalduko zenuke Eloïseren paradoxa? Jakinminan utzi gaituzu.

Eloïse. Eloïse Berger, 26 urte ezagutu nuenean, parisdarra baina familiaren jatorria Normandiako Cherburg hirian zen, kazetaria lanbidez, ale bakarra errepika ezina, diamante landua bere gordintasunean, akats gabeko minerala. Independientea, irmoa hartutako erabakietan, energia iturri inguratzen zutenek nabaritzen zuten bezala, burua inoiz ez hutsik, beti planak, bidaiak, asmoak, amodioak. Benetan emakume xarmanta, aparta, ile doratuek estaltzen zioten lepoa zirimol ordenatuetan, Normandiako itsasoaren berdetasuna begietan, baita behe-lainoen tristezia. Irudi sexuala edozein keinu, edozein ile matazaren mugimendu, edozein hitz, edozein begirada, edozein irritan aurki zezakeen emakumetasunaren hats epela, espiritu ase ezina, sexualitatea soinekotzat duten pertsona hoietakoa zen Eloïse, guztiok genekien hori.

Eloïsek ere, baina ez zion inportantziarik ematen umearekin jaioa den hatzak mugitzeko trebezia bezain naturala zuen halako ezaugarria-eta. Dena zen primitiboa Eloïsegan, Rousseau-k *“Discours sur l’origine et les fondaments de l’inégalité parmi les hommes”* bigarren diskurtsoan erabilitako “inozentzia” zentzunaz.

Irudi liraina, sekula ahuleziaren imintzioak non zeuden ezagutu gabe, eskuen mugimendu neke ezina, begietan miaketa eternala. Bai, hori zen, bilaketa eta bilaketaren

aurre-prestaketak begietatik ateratzen zitzaizkion energia izpien tankeran. Pertsonak, jarduerak, tokiak, denborak arakatzen zituen begi berde lausotu haiekin. Jakinmina zela pentsatu nuen hasierako elkarrizketako unean. Urduritasuna ere.

Ezagutu nuenean Eloïse ondo ureztatutako baratzeko lilien antzera zegoen, koloretsu eta usaintsu. Ezer berezirik egin gabe, larruko poro guztietatik ateratzen zitzaion barne zorionaren lurrina. Batzuk “aura“ bezalakoa ikusten zioten, neu ere hoietakoa nintzela. Ezin nuen ukatu ordea, ipar herrialdeetako udaberriko loreen pasioaz bizi zela, loratze hartan amaieraren horma izoztua gertu ikusita instant xumeenak ere aprobetxatu beharrean zuelako gogoia. Naturako lore basatia bezain ederra zen Eloïse.

Jarraitu aurretik esan beharra dago, egiari atea zabalik mantenduz, une berean maitemindu nintzela. Nerabetasuna hain ahazturik izanda, nere 40 urteetan amodioaren eskarmentuak, zauriak eta alegrantzia uneak bazterturik utzita nituen, baina a zer nolako berotasun uholdeek errekorri zidaten bizkar-hezurra, gihar eta zelula oroak! Gazteengan odolera isurtzen diren hormonon eraginaren egoera, halaxe sentitzen bait nintzen: ahaltso eta ahul, ausart eta koldar, hitz-jario eta horma isila, entzule eta gortuta, hodeien garaietara heldu eta amaldegi hondoetara erori, askea eta kateatuta, bizirik eta hilik.

Bi ezkontza, bata apenas 23 urterekin eta bestea 35 nuela, biek gaizki izan zuten bukaera: lehenean, Gisèle auto istripuan aurkitu zuen heriotza eta Josette bigarrenak italiar eskultore bategatik trukatu ninduen. Txertoak izan balira bezala, zainetatik korrika zihoakidan odalak abiadura motelagoa izan balu legez, sentimenen zorabioek alde egin zidaten eta lanari itzuli nizkion sobera nituen minutu eta ordu haiek.

Esan dut Eloïsetaz maitemindu nintzela atoan. Burua galdu nuen, laburki esanez. Une hartan bazuen kidea, Adèle Gallard edo Ballard izeneko zirujaua, baina ezin nuen nire sentimenak plazaratu gabe utzi eta arrasti batetan, apirileko arrasti hotzean, nerabe txoroaren errola kunplitu nuen. Lotsa masailetan eta hitz totelak, traketsak, ezpainetan.

Eloïsek ezetza eman zidan, jakina, baina hain naturala iruditu zitzaion nire amodioaren zauria, ze apenas inportantzia gabe esandako hitzek nere aztoramendua lasaitu zidaten. Onartu zizkidan, bai, loreak agian, Damu-Santuko hilobian uzten diren usadio errazak errepikatuz. Begirada berdeaz zeharkatu zidan bisaia esku txiki zuria nereetan babesten zuen bitartean. Elkar agurtu ginenean musua eman zidan masailan zera esanez:

– Alain maitea, badut amodioa... orain.

Ez nien hitzei ardura berezirik aitortu eta minduta dagoen nerabea nintzenez Parisetik alde egitea erabaki nuen. Lyonera eraman ninduen ihesaldiak eta dena ahazten

saiatu nintzen hurrengo urteetan. Ezagutu nuen emakumerik bai, baina ezer iraunkorrik. Denek utzi zizkidaten haragian oroitzamenak, baina inolako lorratzik espirituan. Denak ziren, bai, zuhurak edo ederrak edo bereziak edo dibertigarriak. Denak ahaztu ditut inoiz existitu ez balira legez, ezin dut bataren aurpegia bestearenarekin bereiztu, ahoaren eta sudurraren marrak margoztu, begi koloreak gogoratu.

Noizbehinka, Pariseko lagunak berriak heltzen zitzaizkidan edo ta lagun minen bisitaldiak. Ezkutatu ezinezko urduritasunak nabari ziren nigan Pariseko gertaerak eta pasadizuak entzuten nizkienean, benetan jakin nahi (edo behar) nuena aipatzen zuten arteko tartetean. Haietatik eta haueetatik banekien Eloïseren bizitza zein zidor edo bidetik zihoakion. Ballard zirujauarekin lau hilabetetan amaitu zuen erlazioa; izen ezberdinek jarraitu zioten, baina guztiekin errepikatzen zen lelo bera, hiru edo laupabost hileko harremana baino ez.

Jean-Luc, Antoine, Cloé, Guy, Elisabeth (*Lizzy* inglandarra)... ahaztu ditut izenak Eloïsek maitaleak ahazten zituen bezalaxe (hala uste nuen). Eta ziurrenik Eloïse ezagutu aurretik beste izen ilara luze edo motza izango zuen. Jeloskor sentitu nuen nere burua, jeloskor eta saminduta, ba al dago hori baino ergelkeria handiagorik? Eloïsen bizitzatik at ikusten nuen nire bizitza bakartia, hain urruti ze espazioko izarrak gertuago sentitzen nituen. Nerabeak ezin onartu Eloïserekin amodio atalik ez izana korpatitzerik. Eta nerabea baino ez nintzen, aitortzen dut, beharbada lotsaz jantzirik. Baina ez nuen lotsa nigan ikusten, amodio ezaren errefusa baino ez.

Bestalde, nolakoak ziren erlazio-haustura haiek? Eloïsek edo Cloé-k, Antoine-k hartutako erabakia azken mugaraino eraman eta etenduraren distantziaz dena utzi? Ezin nuen Eloïsegan krudeltasunik ezta berekoitasunik aurkitu, hain energia iturri garbia izanik bikoteko harremanetan barne emozio oroaz arituko bait zen. Emozionalki nintzen nerabearen hitzak erabiliz, bihotzeko punpada guztiak emateko prest bait zen Eloïse.

Nire ateralditik (ihesalditik) bost urte igaro ondoren Parisera itzultzea erabaki eta udaberrian Rue d'Alleray 67ko eraikinean etxea aurkitu nuen. Aspaldiko lagun ez ikusiekin adiskidetasun harremanak berlortu nituen eta lanaz arduratzea baino ez nuen buruan. Haien bitartez zera jakin nuen, Eloïse Sebastien izeneko ilarako azkenarekin zegoela. Zenbat denbora elkarrekin izango ote ziren jokoan jarri zuten nere lagunek. Beraz, ez bait nintzen halako zalantzatan eta jakinminetan ari zen bakarra.

Handik sei hilabetara, kasualitate edo patuaren indarraz, Eloïserekin topo egin nuen *Café des Bretons* barnean. Kafearekin konpartitzen zuen bakardadea leiho ostean zegoen mahaitxoan. Pariseko azaro triste hoietako arrastia zen eta nik bezain harridura

begiak zituen. Altxatu zenean musu bana eman nizkion masailetan agur legez. Mahaia, kafea eta solasaldia konpartitzeko gonbitea luzatu zidan. Ezustearen emoziotik jaiotako une argitsu hartan eskuak dardarti mahai azpian ezkutatu nituen arren, nerabea nintzen hura lotalditik itzartu zen, udaberriko xori kantarien energiaz, xori kantarien prestaketen premiaz, xori kantarien txorrotzio amaigabea nere buruan. Emozioaren olatuek jotzen ninduten orohar, ezin ukatu odalaren goritasuna.

Begietan tristezia igarri nion. Tristezia edo norbait desagertu denaren dolua. Nekatuta, urrezko irriñoa apenas markatzen zitzaion ahoan, betidanik zuen “aura“ hura moteldurik sentitu nuen. Benetan xarmanta eta liraina zen, emakume oso ederra, baina apalagoa edo odol beroak epeltasun apurrak baino ez zeramatzazkiola pentsatu nuen.

– Eta zuk Alain, baduzu norbait zure bizitzan?

Galdera zuzena, espero ez nuena. Ez, ez nuen inor erantzun nion belarri puntetaraino gorriturik eta begiak Eloïseren begietatik lotsaz bazterturik. Nola azalduko nioke bere izen eta izanaren oroitzenak okupatzen zituela etxe hutsaren zoko guztiak? bere ausentziak asetzen zizkidala gaueko ametsak? nola nere bihotzaren punpadek...? Nerabeari dagozkion lelokeriak.

– Zuk Eloïse, ba al duzu...?

– Ez, tamalez, berriz galdu dut. Nerea zela uste nuen, baina alde egin zidan.

– Sebastienek utzi egin zaituela? Ezin dut sinetsi, zu bezalakorik ez baitu sekula aurkituko, benetako babua izan behar da...

– Ez Alaine, Sebastienek ez nau utzi. Amodioa izan da berriz utzi nauana.

Ezulertuaren aho ireki eta mutua ikusi zuen Eloïsek nire aurpegian. Itxura komikoa izan behar nuen gorputza aurrerantz eramana, eskua aidean, ahoa eta begiak zabalik inolako giharrik astindu gabe. Egurrezko panpin geldoa edo argazki erraldoia.

Eta Eloïsek bere istorioa azaldu zidan.

Gaztetxoa zenetik, lehen amodioaren zitzadak sakonki ereinda zituen barnean Eloïsek. Lehen amodioak emakumeagan piztu zuen sua amata ezina zen: zirarrak, zentzumenen aditasun iraunkorra, masailetakoa larrosa lotsatiak, egoneza, energia jarioa, drogarik goxoena, bortitza eta indargea, inozentzia eta lizunaz bete ezina, erraza eta ulertezina, lotaldi leuna, amesgaiztoa. Iturrietako ura esku ahurretan harturik bertatik edateko moduan Amodioak hatzak umeltzen zizkion hain sentikorra zen umeltasunaz, aldi berean hatzen artetik nola alde egiten zion nabaritzen bait zuen; ezinezkoa da ura eskuetan mantentzea, ezinezkoa Amodioa eustea.

Eta eskuetan uzten zion azken tantak berriz edateko egarri asekaitza berpizten zion eztarrian, sabelean, begietan bilaketa arakatzaila, non ote zegoen Izakia, non gorderik, ezkutaturik, mozorraturik. Gizaki hilkorrok, emakume zein gizon, tresna erabilgarriak edo pasabideak baino ez ginen Amodioaren lorratzak atxikitzeko.

Ehiztaria eta ehizatua, Greziako basoetako Artemisa jainkosa bezala Eloïsek ezin zuen ehiza hura ukatu, temati eta kementsu ari zen bilaketa hartan. Izandako amorante guztietatik jasotzen zituen Izakiaren urratsak: Cloé-gan samurtasuna, Emile-k pasio suitsuaren bideak erakutsi zizkion, *Lizzy*-k edertasunaren ostean dagoen egia... eta ikasitako pauso berriek oraindik esparru jorratu gabekoetara zuzentzen zuten. Gertuago sentitzen zuen helburua, baina ez, Izakiak ez zuen onartzen bere burua ehiza zitekeen espiritua zenik: askea, aldakorra, iheslaria, atzerritarra toki oroetan, etxekoa atzerrian, erbesteratua eta itzuleraren arrenkuraz amesten zuen Eloïsek.

Amodioaz maiteminduata zegoen eta Honek (josalean-edo) itxaropenak ematen zizkion, baina ume aspertuarena eginez isilka edo bapatean kristal kraskatuen hotsez jantzirik desagertu ur tanta itsasoan bezala, ur tanta basamortuan legez. Goleta zauritua, zurezko mastetan oihal urratuak, nekaturik zegoen Eloïse, minduta, abandonatuta. Agian, ekaitza baretu arteko portu segurua behar omen zuen.

Eloïsek nik baino askosaz gehiago zekien Amodioaren itxuraz eta honen jardueraz.

– Eta non da orain Eloïse, jakiterik badugu, Alain Stefanovich Brunellev? – izendatu ninduen maisutzat nuen Sergei Basilievich-ek ikasle garaian egiten ohi zuen bezalaxe.

Leonard O’Feil dublindarrak eta korruan zeuden buruek galdera bera jaurti zioten mutuak mantentzen ziren ahoetatik. Martha H. Wilson-en ahotik zerbait aterako zelakoan, kozka egin zuen beheko ezpainean eta hitzik ez zitzaion jaio galderari erantzunaren zain.

– Orain... orain nire emaztea da. Elkarrekin gaudenean amodioaz ekiten diegu jarduera oroei. Eloïsek amodioaren ahulezia nabaritzen duenean ohartxoia uzten dit logelako mahaian eta laupabosteko asteko desagertzeari ekiten dio. Berriz itzultzen da eta nik ez diot ezer galdetzen. Agian, lortuko zituen denboraldi hoietan Amodioa benetan atxikitzeko lorratz berriak. Agian, egunen batean ez da itzuliko eta jakingo dut azkenik lortu duela. Agian, porrotaren ondorioz nigana itzul dadin otoitz egiten dut. Agian, hor datza nire itxaropena, Amodioa nirekin batera aurkituko duenaren ametsa.